

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

«Autokarabanentzako zerbitzugunea arautzekoa udal ordenantza».

2015eko uztailaren 23ko Udal Plenoaren erabakiz «Autokarabanentzako zerbitzugunea arautzekoa udal ordenantza» hasiera bateko izaeraz onatzea erabaki zen. Aipaturiko erabakia jendeagirian egon den 30 eguneko epean ez da alegazio edo iradokizunik jaso; argitaratu zen 2015eko uztailaren 30eko dataz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udal Iragarki Taulan.

Aurreko ikusirik, 2015eko irailaren 24ko Udal Plenoaren erabakiz behin betiko izaeraz onartzea erabaki da aipaturiko Araudia, era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitara ematea erabaki delarik.

ATARIKOA

Honako ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arau-petu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25.2.b) artikulua eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 38. artikulua (artikulu horren b atala martxoaren 24ko 5/1997 Legearen artikulua bakarrik aldatu zuen) Udalari trafiko eta zirkulazio alorrean esleitutako eskumena dela bide eman da.

Azaroaren 21eko 1.428/2003 Errege Dekretuan (Zirkulazio Araudi Orokorra onartzen duena eta martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutako trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren garapena ere onartzen duena), 93. artikulua honako hau jasotzen du:

«1. Herri barruko bideetan gelditzeko eta aparkatzeko araubidea udal-ordenantzen bidez arautuko da, eta zirkulazioa ez oztopatzeko behar diren neurriak hartuko dira, hala nola, aparkaldiaren iraupena mugatzeko ordutegiak, eta beste neurri zuzentzaile batzuk, ibilgailuak bertatik kendu eta gordailuan uztea barne, gidaria nor den jakin arte, aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzeko gaitzen duen titulurik gabe daudenean, edo baimendutako denboratik gora daudenean (Testu artikulatuaren 38.4 artikulua).

2. Udal-ordenantzak inolaz ere ezin dira araudi honen aginduen aurka jarri, ez eta aginduok aldatu, hutsaldu edo oker ulertzeko biderik eragin».

Beste alde batetik, Oñatiko Udalak udalerrian turismoa sustatu nahi du, eta horregatik autokarabanentzako zerbitzugune bat erreserbatu du (hemendik aurrera AKGunea). Horrenbestez, gune horren erabilera arautzea komeni da, behar bezalako txandakatze-aldiak eta gunearen erabilera egokia bermatu daitezen. Horregatik onartzen du Udalak ordenantza hau.

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea da udalak San Martin Auzoan duen AKGunearen erabilera arautzea.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

«Ordenanza municipal reguladora de la zona de servicios para autocaravanas».

Por acuerdo Plenario de fecha 23 de julio de 2015, se aprobó con carácter inicial la Ordenanza municipal reguladora de la zona de servicios para autocaravanas». El citado acuerdo fue expuesto por término de 30 días en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 30 de julio de 2015 y Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, durante el citado período no se recibió alegación o sugerencia alguna.

Visto lo anterior el Pleno Municipal reunido en sesión de fecha 24 de septiembre de 2015, adoptó por unanimidad la aprobación de la citada Ordenanza con carácter definitivo y su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

PRELIMINAR

La presente Ordenanza se dicta en virtud de la competencia atribuida al Municipio en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en su art. 25.2.b), así como por el art. 38 del Real Decreto Legislativo 339/1990, del 2 de marzo; Modificado en el apartado b), artículo único, Ley 5/1997, de 24 de marzo de por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

El artículo 93 Real Decreto 1.428/2003, de 21 de noviembre, por el cual se aprueba el Reglamento General de Circulación y desarrollo del texto articulado de la Ley sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial, aprobado por el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, establece lo siguiente:

«1. El régimen de parada y estacionamiento en vías urbanas se regulara por ordenanza municipal, y podrán adoptarse las medidas necesarias para evitar el entorpecimiento del tráfico, entre ellas limitaciones horarias de duración del estacionamiento, así como medidas correctoras precisas, incluida la retirada del vehículo o su inmovilización cuando no se halle provisto de título que habilite el estacionamiento en zonas limitadas en tiempo o excedan de la autorización concedida hasta que se logre la identificación del conductor (artículo 38.4 del texto articulado).

2. En ningún caso podrán las ordenanzas municipales oponerse, alterar, desvirtuar o inducir a confusión con los preceptos de este reglamento».

Por otro lado el Ayuntamiento de Oñati desea promocionar el turismo en el municipio, por lo que ha reservado un espacio «zona de servicios de autocaravanas» (de aquí en adelante ZSA), cuyo uso conviene regular con el fin de garantizar la debida rotación y uso adecuado de dicho espacio, por lo que aprueba esta ordenanza.

Artículo 1.

El objeto de la presente ordenanza es regular el uso de la ZSA municipal del barrio de San Martin en Oñati.

## 2. artikulua.

1. San Martin Auzoko AKGunearen kokapena hauxe da: (43.02792, -2.405630) (548435.70, 4764073,08).

2. Zerbitzugune honek bere baitan autokarabanak aparkatzeko espazio bat du eta baita ur-hartuneak ere -bai urak botatzeko, bai hartzeko-.

## 3. artikulua.

Gune honen erabilera, hasiera batean, doakoa da. Hala ere, udalak doakotasun hori kendu ahal izango du; horretarako, emandako zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharko lukeen tasa arautzeko ordenantza fiskala onartu ahal izango luke.

## 4. artikulua.

1. Autokarabanak AKGunean izan dezaketen gehieneko aparkaldia asteen 3 gauekoa da -3 egun jarraituak edo jarraitu gabeak-. Gune honen helburua turistikoa da, eta ez da nahi desegoki erabiltzea. Gehieneko 3 gaueko egonaldia honela kontatuko da: iritsitako eguneko 10:00etan hasiko da eta laugarren eguneko 10:00etan bukatuko da. Bakar-bakarrik ezinbesteko edo behar-beharrezko kasuetan gaintitu ahal izango da baimendutako gehieneko egonaldiaren iraupena, eta betiere aurretik Udaltzaingoarean edo dagokien organoaren baimena izan beharko dute.

Baimenik gabe aparkaldiko gehieneko denbora gaintituz gero, horri dagokion zigorra ekarriko du, eta ibilgailua erretiratzeara ere ekar dezake.

## 5. artikulua.

Ordenantza hau aplikatzerakoan, autokarabanak honela definituko dira: bizitoki-ibilgailu gisa homologatutako ibilgailuak, ur-andela eta komuna dituztenak. Hauek dira hori berresten duten fitxa teknikoaren zenbakiak (Ibilgailuen Arau Orokorren II eranskina):

- 2448 (bizitoki -furgoneta).
- 3148 (bizitoki-ibilgailu mistoa).
- 3200 (3.500 kg edo gutxiagoko BGM duen zehaztu gabeko autokarabana).
- 3248 (3.500 kg edo gutxiagoko BGM duen bizitoki-autokarabana).
- 3300 (3.500 kg baino gehiagoko BGM duen zehaztu gabeko autokarabana).
- 3348 (3.500 kg baino gehiagoko BGM duen bizitoki-autokarabana).

Horiek dira AKGunean aparkatu ahal izango duten ibilgailu bakarrak.

Gainontzeko ibilgailuek debekatuta dute AKGuneran sartzeara (salbu eta udalak baimendutako barrakadunek).

Aparkatzeko orduan, autokarabanek momentu oro errespetatu beharko dituzte lurzoruan markatutako toki-mugak.

## 6. artikulua.

Ezin da aparkatu autokarabanek maniobra egiteko gunean eta deposituak husteko eremuan; eta erabilera egokia bermatzeko, debekatua dago gune horietan oztupoak jartzea.

Erabiltzaileek, gune hau erabili ondoren, egoera higieniko onenetan utzi beharko dute.

Debekatuta dago espresuki gunean edozein ibilgailu garbitzea, edo desegokia den edo aurreikusita ez dagoen beste edozein helburutarako erabiltzea. Arau hau hautsiz gero, zigorra ezarriko da.

## Artículo 2.

1. La ubicación de la ZSA del barrio de San Martin es la siguiente: (43.02792, -2.405630) (548435.70, 4764073,08).

2. En la misma se dispone de un espacio de aparcamiento de autocaravanas, así como de una toma de agua, habilitada tanto para el vertido como para el aprovisionamiento.

## Artículo 3.

La utilización de este espacio es en principio gratuita. No obstante, el ayuntamiento se reserva la potestad de eliminar la gratuidad y aprobar una ordenanza fiscal que regule la tasa que el usuario deberá satisfacer por el servicio prestado.

## Artículo 4.

1. El tiempo máximo de estacionamiento de las autocaravanas en la ZSA será de 3 noches continuadas o no, en el plazo de una semana, así se fortalece la función turística de la zona evitando un uso inadecuado de la misma. El tiempo máximo de estancia de 3 noches comenzará a contar desde las 10:00 horas del día de llegada y finalizará a las 10:00 horas del cuarto día de estancia. Solamente en caso de fuerza mayor o necesidad y previa autorización de la Policía Local o del órgano correspondiente, se podrá superar este tiempo máximo de estancia permitido.

La superación del tiempo máximo de estacionamiento sin permiso implicará la sanción correspondiente, pudiendo además conllevar la retirada del vehículo.

## Artículo 5.

A los efectos de aplicación de esta ordenanza, se definen como autocaravana los vehículos homologados como vehículo vivienda. Los números de la ficha técnica de los vehículos reconocidos a tal efecto son: (Anexo II del Reglamento General de Vehículos):

- 2448 (furgón vivienda).
- 3148 (vehículo mixto vivienda).
- 3200 (autocaravana sin especificar de MMA menor o igual a 3.500 Kg.).
- 3248 (autocaravana vivienda de MMA menor o igual a 3.500 Kg).
- 3300 (autocaravana sin especificar de MMA mayor a 3.500 Kg).
- 3348 (autocaravana vivienda de MMA mayor de 3.500 Kg).

Esos son los únicos vehículos que podrán estacionar en la ZSA.

El resto de vehículos tiene prohibido el acceso a la ZSA (con excepción de los feriantes autorizados por el Ayuntamiento).

Las autocaravanas estacionarán respetando en todo momento las delimitaciones del espacio marcado en el pavimento.

## Artículo 6.

Queda prohibido el estacionamiento en la zona destinada a la maniobra de las autocaravanas y en la zona de vaciado de depósitos; así mismo está prohibido colocar obstáculos en estas mismas zonas a fin de que pueda garantizarse su correcto uso.

Los usuarios deberán dejar este espacio después de su uso en óptimas condiciones higiénicas.

Se prohíbe expresamente el lavado de cualquier tipo de vehículo o cualquier otro uso indebido o distinto al estipulado. La infracción a esta norma será objeto de sanción.

#### 7. artikulua.

AKGunearen erabiltzaileek aintzat hartu beharko dituzte, bai ingurua zaintzeko eta babesteko, bai auzotasun jator eta gizalegezkoa izateko, udalak egin ahal ditzakeen oharpen guztiak. Batez ere, zabor eta hondakinei buruzkoak. Horretaz gain, udalak edozein garaitan beste erabilera batzuetarako erabili ahal izango ditu zerbitzугunerako prestatutako eremuak, erabiltzaileei inolako kalte-ordainik eman beharrik gabe.

#### 8. artikulua.

Ordenantza honetako edo berau garatzeko organo eskudunak eman ditzakeen xedapenetako edozein artikulua urratzen denean edo betetzen ez denean, arau-hauste bat egin dela ulertuko da; eta Alkateari egokituko zaio ikuskapena egitea eta, bidezkoa bada, isunak jartzea. Ordenantza hau betetzen den edo ez zaintzeko ardura agintaritzagenteek izango dute, eta baita arau-hausteak salatzeko ardura ere -horrelakorik balego-.

#### 9. artikulua.

AKGunean gertatutako trafiko arau-hausteak zigortzeko orduan, Oñatiko udalerrian trafiko-erloko arau-hausteak arautzeko ordenantzaren arabera zigortuko dira; eta ibilgailuen zirkulazio- eta trafiko-erloko zigorrak ezartzeko administrazio-prozedura, berriz, indarreko legedian ezarritakoa izango da.

Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako beste edozein arau-hauste larritzat edo arintzat hartuko eta zigortuko da, arau-haustearen katalogazioaren arabera. Arau-haustea gorabehera, AKGuneetik kanporatzea nahiz eragindako kalteengatik Udalak kalte-galera erreklamatzeko ere ekar dezake.

Zigorrak Alkateak edo hark eskuordetutako organoak ezarriko ditu.

#### 10. artikulua.

Kanpaldi librea debekatuta dago AKGunean eta inguruetan.

#### 11. artikulua.

AKGunea ez da zaindutako gunea. Horrenbestez, Oñatiko Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik gunean aparkatutako bizitoki-ibilgailuetan gerta litezkeen gertaera, lapurreta edo antzekoengatik.

### ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### 12. artikulua.

1. Arau-hauste arintzat hartuko da ordenantza honetako 4. artikuluan xedatutakoa urratuz autokarabana aparkatzea, betiere arau-hausteak bide publikoa oztopatzen ez badu.

2. Arau-hauste arintzat hartuko da aparkaldia bosgarren artikuluan ezarritako debekua urratuz egitea.

3. Arau-hauste larritzat hartuko da ordenantza honetako 4. artikuluan xedatutakoa urratuz autokarabana aparkatzea, betiere arau-hausteak bide publikoa oztopatzen badu.

4. Arau-hauste larritzat hartuko da kanpaldi librea egitea.

5. Arau-hauste larritzat hartuko da altzari publikoa hondatzea eta zerbitzuen gunea zikintzea edo itsustea (deposituak husteko gunea, ur-harguneak). Edozelan ere, eragindako kalteak ordaindu egin beharko dira.

6. Arau-haustetzat hartuko da instalazioa edo bertako hiri-altzaria kaltetu, hondatu edo itsustu dezakeen beste edozein

#### Artículo 7.

Los usuarios de las zonas de áreas de servicio acatarán cualquier tipo de indicación que desde el Ayuntamiento se estipule para el cuidado y preservación de la zona así como para el respeto y convivencia entre los usuarios. Tienen especial relevancia todas aquellas conductas relacionadas con la gestión de basuras y residuos. Así mismo el Ayuntamiento podrá disponer en cualquier momento de las zonas destinadas a áreas de servicio para utilizarlas con otros fines, sin que ello implique ningún tipo de indemnización para los usuarios.

#### Artículo 8.

La contravención o incumplimiento de cualquiera de los artículos de la presente ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo, se dicten por el órgano competente, tendrán la consideración de infracción; correspondiendo al Alcalde ejercer las funciones de inspección y sanción que en cada caso procedan. Los agentes de la autoridad serán los encargados de vigilar el cumplimiento de la presente Ordenanza y, si procede, de denunciar los incumplimientos.

#### Artículo 9.

Las infracciones de tráfico cometidas en la ZSA se sancionarán conforme a lo establecido en la Ordenanza reguladora de las infracciones en materia de tráfico en el municipio de Oñati y el procedimiento administrativo para la imposición de las correspondientes sanciones en materia de tráfico y circulación de vehículos será el establecido en la legislación vigente.

Cualquier otra infracción a lo establecido en esta ordenanza se sancionará dependiendo de su catalogación, como infracción leve o infracción grave, independientemente de que esta actitud pudiera llevar implícita tanto la expulsión de la ZSA como la reclamación por parte del Ayuntamiento de los daños y perjuicios que pudieran haberse causado.

El órgano competente para sancionar estas infracciones es el Alcalde/Alcaldesa de Oñati o el órgano en quien delegue.

#### Artículo 10.

Queda prohibida la acampada libre tanto en la ZSA como en los alrededores de la misma.

#### Artículo 11.

La ZSA no es un área vigilada, por lo que el Ayuntamiento de Oñati no se hace responsable de los incidentes, robos o similares que puedan producirse en los vehículos-vivienda allí estacionados.

### RÉGIMEN SANCIONADOR

#### Artículo 12.

1. Se considerará infracción leve el estacionamiento de autocaravanas contraviniendo lo dispuesto en el artículo 4 de la presente Ordenanza Reguladora, siempre que la infracción no suponga obstaculización de la vía pública.

2. Se considerará infracción leve el estacionamiento contraviniendo la prohibición establecida en el artículo 5.

3. Se considerará infracción grave el estacionamiento de autocaravanas contraviniendo lo dispuesto en el artículo 4 de la presente Ordenanza Reguladora siempre que la infracción suponga obstaculización de la vía pública.

4. Se considerará infracción grave el incumplimiento de la prohibición de acampada libre.

5. Se considerará infracción grave deteriorar el mobiliario urbano así como ensuciar o deslucir la zona de servicios (zona vaciado de depósitos, zona tomas de agua) independientemente de la obligación de reparación de los daños ocasionados.

6. Se considerará infracción cualquier otra conducta que cause daños, perjuicios o deslucimiento tanto del mobiliario

jokaera, betiere jokaera horiek arau-hauste penala ez badira. Arau-haustek, eragindako kaltearen arabera, larriak edo arinak izan daitezke.

*13. artikulua.*

Arau-hauste arinak 30euroko isunarekin zigortuko dira.

Arau-hauste larriak 200 euroko isunarekin zigortuko dira.

*14. artikulua.*

Isunak ordaintzeko epea: 20 egun natural. Epe horren barruan ordainduz gero, zenbateko osoaren %50eko behera-pena izango du.

INTERPRETAZIOA

*15. artikulua.*

Udalari dagokio arautegi honen aplikazioan gerta daitezkeen zalantzetan erabakitzea, eta behar beste aldaketa egitea instalazioak hobetzeko xedez.

*16. artikulua.*

Honako ordenantza honetan aurrikusten ez den orotan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legeak ezartzen duena izango da aginduzkoa, baita lege hori aplikatu eta garatzeko Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorrean xedatzen dena ere eta Oñatiko udalerrian zirkulazioko arau-hausteen araudia (2008ko otsailaren 11ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua 29 zkia).

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 65.2 artikulua xedatzen duen epea igaro ondoren, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte».

Oñati, 2015eko irailaren 25a.—Alkatea. (8273)

urbano como de las propias instalaciones, siempre y cuando estas conductas no sean constitutivas de infracción penal. Estas infracciones podrán ser leves o graves en función del daño causado.

*Artículo 13.*

Las infracciones leves serán sancionadas con multa de 30 euros.

Las infracciones graves serán sancionadas con multa de 200 euros.

*Artículo 14.*

Plazo para el pago de multas: podrán abonarse en el plazo de 20 días naturales lo cual llevará aparejado un descuento del 50% sobre el total del importe.

INTERPRETACIÓN

*Artículo 15.*

Será competencia del Ayuntamiento resolver cuantas dudas surjan en la aplicación de la presente normativa, y realizar las modificaciones que sean necesarias con el objetivo de mejorar las instalaciones.

*Artículo 16.*

En lo no previsto en la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a motor y Seguridad Vial, así como en el Reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo de la misma y Ordenanza reguladora de las infracciones en materia de tráfico en el municipio de Oñati (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 11 de febrero de 2008 (n.º 29).

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y una vez transcurrido el plazo previsto en el art. 65.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento».

Oñati, a 25 de septiembre de 2015.—El alcalde. (8273)